

## 6. FAMILIA AUZITAN

ni zurekin ezkondu?

familia-eredu berriak

bakoitzari berea



Ataza honetan familia-auzitegira joko dugu. Azken urteotan gero eta argiago du jendeak familia-egitura eratzeak badituela bere legezko ondorioak; eta hori pertsonen arteko konpromiso etiko eta sozialaz harantzago doa. Aldi berean, harrigarria da zein gutxi dakigun ezkontza eta bikote-bizikidetzak dituen betebeharrak eta ondorioei buruz.

Horrekin kezkatuta, Administrazioaren arduradunek informazio-kanpaina bat antolatu dute eta geuri eskatu digute laguntza.

ni zurekin ezkondu?

Gaur egun jende asko ezkontzen bada ere, estatistikek diotenez, bi ezkontzatik bat amaitzen da lehen bost urteetan; eta berriro ezkontzen diren dibortziatu horien lautik hiru banantzen dira bigarren aldiz.

- Bideo-pasartea<sup>1</sup> ikusi eta gero, bi talde osatu behar dituzue: A taldeak ezkontzearen aldeko arrazoiak idatziko ditu eta B taldeak ezkontzearen aurka-koak.

A taldea: ezkontzaren alde

Handwritten notes for the 'A taldea: ezkontzaren alde' section.

B taldea: ezkontzaren kontra

Handwritten notes for the 'B taldea: ezkontzaren kontra' section.

- Bikoteak egin (A eta B), taulan bildutakoaren elkarri kontatzeko.



- Ezkerreko zerrendan dauden hitzen sinonimoak eskuineko zutabean aurkitu beharra dago. Gai al zara?

Ezkontidea  
Oinordekoa  
Bizikidetza  
Agintea  
Zaintza  
Egonkorra  
Aitorpena  
Eraginkortasuna  
Betebeharra

Elkarbizitza  
Ahalmena  
Begiratzea  
Aldagaitza  
Premua  
Eginkizuna  
Efikazia  
Bizilaguna  
Testigantza

ni zurekin ezkondu?

- Orain, kontrako bidea egingo duzu: ondoko bi kontzeptuak definitzen saiatu behar duzu, lexiko egokia erabiliz. Ikaskide baten laguntzaz errazago egingo duzu.

ezkontza

Handwritten notes for 'ezkontza' (marriage).

izatezko bikotea

Handwritten notes for 'izatezko bikotea' (de facto couple).

- Elkartu beste ikaskide batekin zure definizioak osatzeko. Ondoren, denen artean txukunenak aukeratuko dituzue.

- Hemen dituzue bikote ezkonduari eta izatezko bikoteari dagozkien hainbat ezaugarri. Esaldi bakoitzetik hitz bat kendu dugu esanahia gehiegi oztopatu gabe. Zuen eginkizuna hitz hori dagokion tokian txertatzea da.

1. Amak aitortu behar du seme edo alabaren aita nor den.	espresuki
2. Bikotearekin eta familiarekin zerikusia duten erabaki guztiak adostasunez hartu behar dira. Bata ezin da bestearen ordezkaria izan.	elkarren arteko
3. Bikotearen alderdi pertsonaleko betebeharrak (bizikidetzatza, leialtasun-betebeharra...) pertsonalak dira eta ez dute ondorio juridikorik.	hitzarmen
4. Bizilekua bien arteko adostasunez behar da. Adostasunik izan ezean, Epaileak erabakiko du interesa kontuan hartuta.	ezarri
5. Elkar errespetatu eta lagundu egin behar dute. Elkarrekin bizi behar dute eta leialtasuna zor diote.	elkarri
6. Ez bata ez besteak ez dute betebeharririk: etxeko zereginen banaketa elkarren arteko adostasunez egingo da.	propio
7. Gizona eta emakumea berdinak dira eskubide eta betebeharrei dagokienez.	erabat
8. Kideetako batek etxeko zereginetan duen arduraldia familiaren sostengurako ekarpentzat hartzen da.	erabateko
9. Ondasun pertsonalak eta ekonomikoak erregulatuta daude.	juridikoki

- Bikoteka jarrita konparatuko duzue egindako lana. Zalantzarik baduzue, irakasleak jakinaraziko dizue erantzun zuzena.

Dagoeneko, bikoteak seme-alabekin osatzen duen familia-ereduak Euskal Herrian zuen nagusitasuna galdu du. Eredurik jarraituena izan arren, ez du familia guneen erdia biltzen. Hortaz, bestelako ereduak zabaltzen hasi dira: guraso bakarrekoak, familia harremanik gabekoak, seme-alabarik ez duten bikoteak eta, batez ere, bakarrik bizitza erabakitzen duten norbanakoak.




- Bideo-pasartea<sup>2</sup> ikusi eta gero, pentsatu zein familia-eredu berri sortzen ari diren azken urteotan. Egin ezazue zerrenda bateratua denon artean.

A rectangular box with a yellow border containing ten horizontal dashed lines for writing.

- Bi taldetan jarriko zarete eta zerrenda horretako eredu bakoitzaren ondoan alde txar nagusiena idatziko duzue. Jarraian, osatu bikoteak eta alderatu egingakoa ea bat zatozten alderik txarrena aukeratzekoan.

- Ondoko paragrafoak familia-eredu berriak aipatzen dituen artikuluko<sup>3</sup> batenak dira. Guk nahastu egin ditugu eta zuek, binaka, ordenatzen saiatu behar duzue, paragrafo bakoitza dagokion azpigituluaren barruan ipiniz. Hona hemen azpigituluak eta bakoitzak duen paragrafo-kopurua:



**A** Bikotean bizitzea aukera gisa ikusten hasi da; are gehiago, ezkontzea bigarren hautu bat izan daiteke. Horrela uler daiteke, 2001ean, ezkontza zibilak katolikoek ia erdira heldu izana. Hau da, ezkontza tasak beheranzko joera azaltzen badu ere, ezkontzen artean zibilak hazten dira, errito katolikoaren kaltetan. Era berean, elkarrekin bizitzea erabakitzen duten bikoteak gero eta gehiago dira, ezkontzen diren bikoteekin alderatuta.

**B** Gehienak hiri handietan bizi dira eta maila kultural eta ekonomiko handia dute. Oraindik gehiengoa ez diren arren, asko hazten ari den klase soziala da gazte ezkontzabeena. Soziologoek diotenez, Espainian kopurua oraindik txikia da Europako beste hainbat herrirekin alderatuz. Eta horren arrazoia orain artean gazteak gurasoen etxetik beranduago ateratzen direla izan da.

**C** Azken hamar urteetan bi gurasoetako batek eta seme-alabek osatutako familien kopurua % 50 igo da. Eta Espainia osoan, dagoeneko, 100etik 7 dira horrelako familia osatu dutenak. Horien artean, amak —eta ez hainbeste aitak— dira protagonista nagusiak. Hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoan, horrelako familien artean % 81,5etan ama da familiako burua. Gehienetan bikote hausturen ondorioz, alargun geratu ondoren, edota bakarrik ama izateko erabakia hartu duten amek osatzen dituzte.

**D** Ezkontza kopurua gutxituz joan da eta, ezustekoa bada ere, izatezko bikoteekin gauza bera gertatzen ari da. Bakarrik bizitzeko joera hori kolektibo homosexualetan ere gertatzen ari da.

**E** Gaur egun orokorrean bakarrik bizi diren lagunen % 60 emakumeak dira; horien erdia ezkongabeak dira. Fenomeno berri horren atzean, andrazkoa lan mundura gerturatu izana dago. Emakumea eremu publikoan presente egoteak bikoteek izan nahiko lituzketen umeen kopurua mugatuko lukeela aurreikusi zen garai batean. Emakumeek lortutako independentzia ekonomikoak, baina, familia eredia bera kuestionatzera eramango gaituela ez zen aipatzen oraintsura arte. Eta egungo datuek argi frogatzen dute aldaketa hori ematen ari dela.

**F** Horrekin batera suertatu da haurrak izateko adina atzeratzea. Lehenengo haurra izateko adinak atzera egin du, egonkortasun ekonomikoa ziurtatuta eduki arte, hain zuzen. Gaur egun, lehenengo umea izateko batez besteko adina 29,5 urte da, Euskal Herri osoko datuen arabera. Bikotea eta seme-alabak «geroaren proiektioaren isla» direla azaldu digu Urteagak. Hortaz, egoera ekonomiak baldintza dezake ziklo hori. Urteagak gogoratu duenez, «hazkunde ekonomikoak, esaterako, jaiotze-tasan eragin nabarmena izaten du».

**G** Orain hamar urte ezkongabea izatea eta galtzailea izatea gauza bera zen, 25 urtetik aurrera behintzat. Gaur egun, ordea, Espainian ezkondu gabe 25 eta 49 urte bitarteko 5 milioi pertsona baino gehiago bizi dira. Eta, hain zuzen ere, horiek dira egun gizartearen talde kontsumitzaile indartsuenetakoa: ezkongabeek diru kopuru handiak xahutzen dituzte modan, dekorazioan, aisialdian, bidaietan, produktu teknologikoetan...

- Bikoteak desegin eta berriak sortu, taulan idatzitakoa konparatzeko.

- Ikusi hurrengo irudiak<sup>4</sup>. Ba al dago jenderik opariak eskuratzearren ezkontzen denik? Kontatu ikaskideei nola antolatzen duten oparien kontua zure inguruko jendeak.



- Kode Zibilak dioenez, ezkontideek hiru erregimen ekonomiko dituzte aukeran. Taulako hiru definizioak irakurrita, bakoitzari zein erregimen ekonomiko dagokion esango duzu. Kontzeptuak euskaraz idatzi behar dituzu, baina ezin zara hiztegiak baliatu hitz egokiak bilatzeko.

Senar-emazteetako edozeinek ezkondata egon diren bitartean lortutako irabaziak edo etekinak senar-emazteen ondasun komunak dira.

Senar-emazte bakoitzak bere ondasunak ditu eta independentziaz joka dezake, horiek askatasunez administratzeko eta erabiltzeko. Obligazio bakarra da norbere baliabideen arabera ezkontzako kargetan parte hartu beharra.

Senar-emazte bakoitzak besteak lortutako irabazietan parte hartzeko eskubidea dauka, baina bakoitzari dagokio norbere ondasunen administrazioa eta gozamenena.



- Orain arte irakurri eta entzun duzunaz baliatuta, ea gai zaren hurrengo galderari erantzuteko. Seguru ez bazaude, ikaskideei galdetu.

Ana ezkongabea da eta bost urteko semea du. Orain arte aitak ez du haurra formalki Erregistro Zibilean semetzat hartu. Anak jar al dezake elikagai-demanda bat haurraren aitaren aurka?



oharrak

Lined writing area with horizontal dashed lines.

Lined writing area with horizontal dashed lines.